



GOBERNANTZA,
ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA
AUTOGOBERNU SAILA

Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Espezifikoa

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO

Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

ATARI PUBLIKOEN DIREKTORIOA 2024

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOEN % 96,0k GUTXIENEZ WEBGUNE BAT DU

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen % 91,4k, udalez azpiko erakundeak kenduta, beren zerbitzuak eta izapide elektronikoak eskaintzeko webgune bat dute.¹

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailak egindako zentsu-eragiketa den Atari Publikoen Direktorioan, 2024an, euskal erakunde publikoek erabiltzen dituzten 1.520 webguneen identifikazioa, egitura, ezaugarriak eta URLak jaso dira, eta orain administrazioen eta gizarte osoaren eskura jartzen dira.

Erakunde publikoen barruan, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen 1.301 webgune gehigarri bereizi dira, 2.821 guztira.

Udal Haur Eskolak (hamarretik zortzik dute webgunea) dira Interneten ordezkari txikiena duten zentroak.

Ikastetxe motaren arabera, Bigarren Hezkuntzako Institutuek (% 99,2), Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeek (% 93,4), euskaltegiek (% 90,7), Musika-Eskolek (% 88,6), Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuek (% 88,2) eta Udal Haur Eskolek (% 81,3) baino ez dute presentziarik Interneten.

Ikastetxeak mende dituen erakunde publiko motaren arabera, Haurreskolak Partzuergoko ikastetxe guztiek interneteko atari bat izango dute gutxienez. Erakunde autonomo administratiboen mendeko zentroyen % 97,3k interneten dute presentzia; ondoren, Eusko Jaurlaritzarenak (% 96,0) eta udalenak (% 87,5) daude. Aldiz, mankomunitateen mende dauden hiru zentrotatik bik baino ez dute webgunea.


Kontuan hartu behar da ikastetxe publikoetako atarien % 60,5 Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mende daudela, % 25,6 Haurreskolak Partzuergoaren mende, % 8,8 udalen mende, % 4,1 erakunde autonomoen mende eta % 1,0 mankomunitateen mende.

¹Udalez azpiko erakundeak erakunde guztien % 30 dira, baina oraindik presentzia urria dute interneten, eta horiek ezabatzean hobeto uler daiteke gainerako sektore publikoaren egoera.

Arabako hezkuntza-zentroak nabarmentzen dira Interneteko atarien eskuragarritasunean, % 96,6rekin

Lurraldeka, Araban dauden ikastetxeak Bizkaikoak (% 96,6) eta Gipuzkoakoak (% 95,2) baino pixka bat handiagoak dira, 0,1 eta 1,4 puntu portzentual hurrenez hurren.

1. grafikoa. Euskal Autonomia Erkidegoan webgunea duten unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoak ikastetxe motaren arabera. % 2024




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua. Atari Publikoen Direktorioa. ATARIKA 2024

Unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen % 8,3k ez du webgune konbentzionalik, baina blogak dituzte

Blogak, ohiko webguneekin alderatuta, erraz sortzen eta administratzen dira, aurrez diseinatutako txantiloiez baliatzen baitira. Horrela, baliabide gutxiago dituzten eduki-kudeatzaileentzat interneten espazio bat sortzeko irtenbide ezin hobe bat dira plataforma horiek, eta ohikoa da irakasleek blogak sortzea eta mantentzea.

Horrela, online eskaintza blogen bidez soilik aurkeztzen duten 76 ikastetxeetatik 64 Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetakoak dira.

2. grafikoa. Webgunea duten Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak, motaren eta lurralde-eremuaren arabera (Udalez azpiko erakundeak kenduta). 2016-2024.%



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua. Atari Publikoen Direktorioa. ATARIKA 2024

Bizkaiko lurralde historikoari lotutako erakunde publikoak nabarmentzen dira Interneteko ataria izateari dagokionez (% 93,7).

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen % 62,9k ataria dute Interneten 2024an. Udalez azpiko erakundeak alde batera utzita, interneten presentzia duten erakundeen proportzioa % 91,4 da, 2021ean baino ehuneko 3,5 puntu gehiago.

Euskarri horiek sortzeko eta kudeatzeko lurralde dinamikoena Bizkaia da (erakundeen % 93,7), ondoren Gipuzkoa (% 89,2) eta azkenik Araba (% 24,5). Azken lurralde horretako ehuneko hain txikia administrazio-egitura partikularrari zor zaio. Kalkuluetan udalez azpiko erakundeak kenduz gero, Arabak interneteko ataria duten erakunde publikoen % 86,0 izango luke.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoa hartzen duten erakunde publikoen % 91,4k webgunea dute.

Bost baltzu publikotik batek oraindik ez dauka ataririk interneten


Udalez azpiko erakunden atzetik, partzuergoak eta baltzu publikoak dira interneten gutxien agertzen direnak; izan ere, partzuergoen % 75,0k eta baltzu publikoen % 80,8k daukate webgune bat. Hala ere, horien presentziak gora egin du 2021etik, 8,3 eta 4,3 puntu portzentual hurrenez hurren.

Aitzitik, udal eta foru aldundi guztiek, Unibertsitate Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak interneten jarraitzen dute.

Bost webgune publiko Berdintasun Arlora bideratuta daude

EAEko erakunde publikoek erabiltzen dituzten webguneen % 45,1 administrazioaren arlo funtzionalera bideratuta daude. Bigarrenik, atarien % 15,1 kulturari dagokie. Hirugarrenik, beste eremuekiko alde handia izanik, turismoari begirako atariak daude (% 5,0). 2021. urteaz geroztik, berdintasunaren arloan zentratutako webguneak hiru izan dira, eta guztira bost izan dira.

3. grafikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoen webguneak, arlo funtzionalaren arabera. 2024. %



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernua. Atari Publikoen Direktoria. ATARIKA 24

Ohar metodologikoa: Ikerketa-esparru gisa, Eustaten 2022ko behin-behineko Administrazio Publikoen Direktoria erabili da, 1.077 erakunde biltzen dituena, bai eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen direktorio orokorra ere (2023/2024 ikasturtea), 866 ikastetxe publiko dituena. Ez dira sartu Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten Estatuko Administrazio Orokorreko erakunde publikoak.